



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ARRAGUA

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2019-09-30	19:00	21:01

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux, Jon, Goratz, Olga			
Herritarrak:	Euskaraz: 15		Elebitan: 6	
	Emakumezkoak: 10		Gizonezkoak: 11	
	<30 urte: 1	31-50 urte: 2	51-65 urte: 6	>66 urte: 12

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	
Aurrekontuak 2020	Zorraren inguruan galdetu du auzotar batek. Zorraren inguruko informazio gehigarria eman da.
Oiartzun	<p>Mendiburu 14: Proiektuaren azalpena. Beste erakundeen inplikazioa zein den galdetu dute. Printzipioz ez dago laguntzarik aurreikusita, baina orain da momentua behin betiko proiektua aurkezteko.</p> <p>Etxebizitza bulegoaren inguruko informazioa eman da.</p> <p>Etxebizitza berrien inguruan galdetzen dute auzotarrek. Anbulategiaren aparkalekuko proiektua aurkezten da. Etxebizitzak egiten direnean azpiegiturak aurreikusi diren galdetzen da. Plangintzan hori guztia aurreikusita dagoela erantzun da.</p>
Auzoa	·Lanbarrenera autopistaren sarrera eskatu dute. Aldundiari eskaera egiteko proposatzen dute. Lezoko polo logistikoaren garapenarekin lotuta dago autopistaren sarrera. Udalak saiakerak egiten jarraituko du.



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



- Autobidea ordaindu behar delako kexak daude. Udalak saiakerak egiten jarraituko du.
- Auzoetako proiektuen berri eman da.
- Ganboxako parkea. Nonbaitetik hasteagatik, gutxienez itxiturak jartzeko eskatzen dute. Txakurren eremua eta haurrena jartzeko eskatzen da. Txakur kaken arazoa era integralean lantzeko aipatzen da.
- Txakurren arazoa ez da kakena bakarrik. Txakur arriskutsuak ere badaude.
- Arraguako sarreran abiadura jaisteko neurriak hartu behar dira. Aurreko urtetan ere eskatu zen.
- Arragua, Arizabalo eta Mendin arteko pista zabaldu beharko litzateke.
- Arraguako behetik Arragua gora argiteria falta dago. Gainera espaloia irristakor dago.
- Ganboxa erreka lur azpian sartzeko eskatzen dute. Bukaera sartu zen eta hoditerira zaborra ez sartzeko oztopoak jarri ziren. Zaborra pilatzen denean bizilagunen lorategiak urez betetzen dira. Mantenua egiteko eskatzen da zaborrak kentzeko.
- Euskotreneko geltokiaren ingurua txukuntzeko eskatzen dute (hesia eta paretak).
- Autobus geltokiko semaforoa oso arriskutsua, oinezkoentzat batez ere. Aldundiari behin baino gehiagotan eskatu zaio.
- Arragua beheko parkearen lurra konpondu behar da. Aurrekontuak eskatuta daude.
- Arraguako sarreran (pikoketa parean) autoak aparkatzen dute eta oztopoak jarri beharko lirateke. Lorategian ere aparkatzen dute.
- Gimnasia egiteko makinak eskatzen dituzte. Ahal bada Euskotreneko zubiaren azpian.
- Aldira pasatzeko zebrabidea jartzeko eskatzen dute.
- Aldeguna elkarteko bidegurutzean seinalizazioa falta da. Istripu arriskua dago.
- Anbulategiko aparkalekuan karabanak aparkatzen dituzte. Arazoak egoten dira puntualki.
- Loredenda zenean jendea bizitzen ari dela diote.



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,37
bilera ongi gidatu da	8,21
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,05
Auzotar kopurua	5,00
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,21
Saioa probetxugarria izan al da?	7,82
Egunaren egokitasuna	8,47
Orduaren egokitasuna	8,65
Lekuaren egokitasuna	8,12
Batezbestekoa	7,77